



Hamar galdera 4. mailako irakasleari

Aitor Ogiza

Dezenteko jakin-mina piztu du euskalduntze-alfabetatzearen 4. mailak. Eta interes horren lekuko Ermuko AEK-n irakasle ari den Aitor Ogizaren ekarpena dakargu orrialde hauetara. Lana, gogoeta teorikoei muzin egin gabe, ikuspegi praktikotik bideratuta dator batez ere, zeren eta oso kon-tuan hartu baitu artikulugileak ikasgelako egunoroko jarduna. Hari horretatik, 4. mailaren nondik norakoak ezartzen dituzten hamar galdera egin ditu baita erantzunak eman ere. Horrela bada, “Zer da 4. maila” galderatik hasi eta “Zelan egokitzen zaio on line formatuari” galderaraino arin, era errazean eta ulerkorrean jorratu ditu maila horren ipi-apa guztiak.

Hasteko 2005etik hona, nire lan-denboraren tarte handi bat hartu du euskalduntzearen 4. mailak. HABEk osatutako lantaldearen partaide, saio-taldeetan, irakasleen prestakuntzan eta *on line* tutore aritu naiz.

Urte hauetan guztietan, gero eta interes handiagoa nabaritu dut 4. mailarekiko. Gurean –AEKn– behintzat, ez dira lankide gutxi izan ikastaro honi buruz galderak egin dizkidatenak: zer da hori? zer egiten duzue? ikasleak nola dabilta?; halakoak izan dira, gutxi gorabehera, irakasle eta zuzendarien jakin-minaren erakusleak.

Hori dela eta, honako hau idaztea otu zait, denok ditugun zalantzei erantzuteko asmotan; horrela, ekimen honi lasaiago heltzeko moduan egon zaitezten. Eta honela idaztea erabaki dut, lankideon galderen bilduma bat eginez, eta erantzuten saiatuz, zuengana heltzeko biderik zuzenena delakoan.

Izan ere, esku artean duzuen ez da –ez dut izatea nahi– lan zientifikoa; egongo da, horretarako, ni baino adituagorik. Aitzitik, besteok ere adi-tuen ekarpena mamurtuta jaso dugu. Lan honek eguneroko eskarmentua du oinarri, eta eskarmentua ere du helburu; zeun hurrengo eskarmentua, alegia.

Hamar galderatara ekarri ditut han-hemen jasotako kezak. Beti bezala, faltako da zuetako bakoitzak galdetuko lukeen hura, baina, ustez, nahiko osatuta daude ikastaroari dagozkion ardatz nagusiak.

1. galdera *LEHENENGO ETA BEHIN, ZER DA 4. MAILA?*

Ez litzateke batere zaila 4. maila zer den esatea. Nahikoa nuke, horretarako, Europako Markoaren C2 mailaren deskripzioa aintzat hartzea, edo HABEk 4. mailarako egindakoetara bidaltzea zuzenean irakurlea.

Honela definitzen da HEOKen¹ 4. maila duenaren gaitasuna:

“Kultura maila goreneko eta norbere espezialitateko gaien inguruan elkarriketa mantendu eta iritziak eta azalpenak emateko gai da. Testu espezializatuak bere osotasunean jasoko ditu eta hizkuntza formal eta informalean egoerari egokitzuz arrakasta lortuko du. Era guztietako testuak zuzen, zehatz eta jator idazteko gai da. Euskalkietako berbaldiak eta idatzizko testuak ere ulertzeko gai da”.

Hizkuntzen Europako Markoak², bere aldetik, honako deskribapen hau ematen dio C2 mailari (4. mailaren baliokidea, 2009 otsailaren 24ko dekretuaren bidez):

“Gai da irakurtzen edo entzuten duen ia guztia erraz ulertzeko. Badaki idatzizko nahiz ahozko iturri desberdinetatik datorren informazioa eta argudioak berreraikitzen, eta era koherentean eta labur adierazten. Badaki bat-batean, jarioetasun handiz eta zehaztasunez gauzak adierazten, eta esanahiaren ñabardura txikiak bereizten ditu, baita konplexutasun handiko egoeretan ere.”

Biak ala biak, ondo definizio argiak dira, esaldi batean laburbiltzeko modukoak: 4. maila duenak gai izan behar du hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko, edozein egoeratan.

Alabaina, askotan, zail egiten zaigu ikustea zertan den erabilera zuzen eta egoki hori. Duela pare bat urte, euskalduntzearen 4. mailako irakasle niharduela-eta, lagun batek ziotan hori euskaltegiaren asmakizun hutsa baino ez dela, merkaturatua zabaldu guran. Bere ustetan, edozein hiztunek, bizitzan aurkituko dituen behar komunikatibo guztiak asetzeko, nahikoa gaitasun izan beharko luke, baldin eta kultura-maila altua –esate baterako, goi-mailako ikasketek adierazten dutena– badu. Horixe da lagunak nahiko lukeen ibilbidea bere alabentzat eta, hortaz, hizkuntzaren lanketa bere(i)ziak ez du larregi arduratzen.

Nire laguna euskalduna da, baina, gure belaunaldiko hainbatek bezala, gazteleraz egin du bere ibilbide akademiko guztia. Berak gaitasun hori

aitortzen dio bere buruari gazteleraz, eta ez du bestelako formazio beharrik ikusten; izan ere, uste baitu bera badela gai taxuz gauzatzeko edozein eginkizun komunikatibo, baita formaltasun-maila altuagoa eskatzen dizkiotenak, lanekoak kasu, ere. Nik, lagunik galdu nahi ez, eta ez nuen bere gaitasuna zalantzatan jarri.

Hala ere, edozein lagun-talde edo familiari erreparatzea nahikoa dugu, zertaz ari garen ikusteko. Lehen hizkuntzan (edo ondoen menderatzen dugun hizkuntzan) dugun gaitasuna kontuan hartzen badugu, bi talde nagusi bereiz daitezke:

- hizkuntza menderatu arren, oinarri-oinarrizko maila dutenak, ahoz arazoak izan ditzaketenak, maila kolokialetik harago jarduteko, eta idatziz ere arazo franko dituztenak, testu formal antzeko bat taxutzeko; eta
- muga horiek izan ez arren, zailtasunak izango lituzketenak, esate baterako, argitara emateko testu bat sortzeko, edo jendaurrean ahoz aritzeko.

AEKn, duela urte batzuk, lan bat egin genuen, lehen hizkuntzan dugun konpetentzia deskribatzeko; argi ikusi genituen bi gaitasun ezberdinak, eta erraz asko lotu genituen, bata B2 edo 2. mailarekin, eta bestea C1 edo 3. arekin.

Badago, baina, deskribapen horietatik gorago dagoen gaitasuna: sortze literarioan sartu barik, ia edozein testu, ahoz zein idatziz, sortzeko gaitasuna duen horrena; laneko txostenak egiten dituenarena; lan-arloko ikerketak argitaratzen dituenarena; ezezagunen aurrean, ahozko azalpen testuak egiten dituenarena...

Beraz, 4. maila zer den ulertzeko, oso modu eraginkorra izan daiteke pertsona hori *irudikatzea*. Gure koadrilan, esate baterako, horrelako bakarra dugu. Ez dakit 4. mailaren egiaztagiririk duen, baina lagun hori gai da aipatutako horiek guztiak arrakastaz gauzatzeko. Akaso, berezko dohaina izango du, baina dohain hori elikatu egin du; batetik, zaletasunak eraginda eta, bestetik, beharrak –lanak– aginduta. Erabiltzeko beharrak bultzatu du ikastera, hizkuntzan trebatzera, alegia.

Ezagutuko duzue zeuek ere, zeuen inguruan, halakorik!

2. galdera *ASKO JAKIN BEHARKO DA, IKASTARO HORI EMATEKO, EZTA?*

Normala da hau bezalako ikastaro bat emateak, hasieran, errespetua ekartzea; azken batean, horixe gertatzen baitzaigu ezer berri edo ezezagunen aurrean jartzen garenean. Errespetutik harago, baina, erronka polita da irakasteaz gain ikasteko zaletasuna duenarentzat, ikasteko eta hazteko, bai hizkuntzaren erabilerari dagokionez, bai irakasle moduan.

Lehenengo eta behin, ez dugu zertan filologo izan ikastaro horri aurre egiteko. Aitzitik, hizkuntzaren ikerketatik harago, hizkuntzaren erabilerara egokia interesatzen zaigu. Hizkuntza aztertuko dugu alderdi pragmatikotik; hau da: idazleak (hizlariak) zer, zergatik eta zertarako egin duen

analizatuko dugu eta, batez ere, zer nolako estrategiak jarri dituen ibilian, egitekoa arrakastaz gauzatzeko.

Horrek eskatuko dio irakasleari, jakina, hizkuntzaren hartzaille tre-bea izatea. Esan gura da-eta, ezeri ekin aurretik, irakasleak jakin egin beharko duela, irakurketa xehea eginda, sortzaile arrakastatsu horien estrategiak atzematen, testuinguruan jartzen eta, nola ez, ikasleari era didaktiko batean erakusten. Izan ere, horixe baita 4. mailak darabilen bide didaktikoaren aldaketa nabarmenena: irakastetik erakustera pasatuko gara, estrategiak erakustera; ez estrategia horiek, beste barik, erabiltzeko, baizik eta bilduma bat osatzeko, ikaslearen bizkar-zorroa betetzen joango dena.

Planteamendu didaktiko honek badakar, gainera, bigarren inplikazio bat, oraintxe ikusi dugun beste horren ondorio zuzena: nekez bideratu ahal izango dugu ezelako lanketarik, hizkuntzaren erabileratik kanpo; ezin izango dugu ezer landu era isolatuan, testuingurutik kanpo, testuinguru horrexek emango dio-eta zentzua dena delako edukiari.

Era berean, erabileraz ari garenean, ezagutzaz bainoago, beste arazo bat sortu ahal zaio irakasle hasi berriari. Oso ohituta gaude, irakasle moduan, arau eta abarrek ematen diguten ziurtasunaz aritzen; nolabait, prestatua izaten dugu, momentu oro, erantzun *zuzena* edo, beste barik, badakigu nora jo haren bila. 4. mailako ibilbide metodologikoan, ostera, eskolak mintegi erara planteatzen dira. Rol-aldaketa horretara, egin egin behar da irakaslea.

Beraz, 4. mailako irakasleak behar du, batez ere, hizkuntza eta irakas-kuntzarekiko oso ikuspegi zabala. Ulertu egin behar du, ezer baino lehen, hizkuntza, egoki darabilgunean, gehiago dela arauak baino: zuzen erabilita ere, badagoela arauokin jokatzeko modurik; ez dela efektu bera lortzen, gauza bat era batera edo bestera esanda...

Horretarako, prestakuntza behar da. HABEk prestakuntza-bideak eskaintzen ari da 2007-2008 ikasturtetik hona, 4. mailarako gaikuntza didaktikoa lortzea helburu dutenak. Aukera baduzue, parte hartu, asko ikasiko duzue-eta.

Irakaslearentzat, erronka latza da, hortaz; bueltan datozen onurak ere ez dira makalak: egingo nuke irakaslea dela ikastaro honi etekin handiena ateratzen diona.

3. galdera *ETA ZE IKASLE IZANGO DUT?*

Galdera honi erantzuteko, ezinbestean egin behar diegu erreferentzia euskalduntzearen agiriei. Zoritxarrez, euskaldunak garen aldetik, euskararen eremu geografikoan bizi garenok, bagarela adierazteko, frogatu egin behar dugu euskaraz dakigula edota zer neurritan garen gai euskaraz egiteko. Hala ere, zorionez, euskara-irakasleak garen aldetik, hizkuntza-gaitasuna frogatu behar horrek berorrek hurbildu dizkigu hainbat euskaldun, bestela nekez etorriko zitzaizkigunak.

Ez naiz batere agiri zale, baina sinetsita nago zertifikazioaren beharrak hizkuntza-erabiltzaile hobeak egin gaituela. Nolabait, ulertu egin dugu hizkuntzan badagoela zer ikasirik, beti. Kezka hori ez dakusat, ordea, gaztelera darabiltenengan, nahiz eta C2 maila, Europako Markokoa, hizkuntza guztietarako izan. Nik ez dut inor ezagutzen, txukun antzean dominatuta hizkuntza normalizatua –nork berea, edozein–, hobe-kuntzarako bideak bilatu dituenik. Lehengo nire laguna berriro hona ekarrita, hark ez deritzo beharrezko bere burua janzteari, hizkuntza kontuetan.

Beraz, agirien erreferentea ezin izango dugu galdu, ikasleak irudikatzean. Batzuetan, HABEren 4. maila atera nahiko dute eta, besteetan, beste agiri batzuetatik errebotatuta etorriko dira. Eta, azkenik, badaude, egon ere, agiria behar ez dutenak ere; baina, egia esateko, inork –gurean hala gertatu izan da, behintzat– ez du galdu nahi azterketa egiteko aukera. Batzuekin eta besteekin, gure egitekoa izango da, abagunea aprobeztatuz, ikasleei sinestaraztea maila ematea dela biderik errazena, azterketak gainditzeko.

Testuinguru horretan ulertu behar dugu ikasleen deskripzioa. Euskalduntzearen 4. maila euskaltegietan zabalitzen ari den eskaintza da. Lehengo urratsetan gaude oraindik ere eta horregatik, akaso, hurbildu zaizkigun ikasle edo ikaslegaiek oso antzeko profila dute: hizkuntza-erabiltzaile (nahiko) onak, maila kultural altukoak, lanean euskaraz egiten dutenak –edo egin nahiko luketenak–, eta hizkuntzarekin arduratuta daudenak.

Berez, ikasleak onartzekoan, bahe bakarra da 3. maila edo baliokidea izatea. Argi izan behar dugu, ordea, 3. mailadunen (agiridunen) artean oso kolore-aukera zabala dagoela, zuritik beltzeraino.

Ebaluazio diagnostikoak izugarritzko garrantzia izango du, ikasleen benetako gaitasuna ezagutzeko, bakoitzaren gabezien berri izateko, eta erabaki egokiak hartzeko. Era berean, zintzo jokatu dugu ikasleekin eta, beharbada, azaldu egin beharko diogu hainbati ez duela nahikoa izango urtebetez aritzea, 4. maila lortzeko.

Gainera, ezin dugu ahaztu maila espezializatuaz ari garela; eta, espezializatua den neurrian, edozeinek ere ez duela maila hori *behar*. Kontua ez da, ezelan ere, inori debekua jarri edo ikastaro elitista bat sortzea; ez. Baina onartuko dugu, halaber, denok ez ditugula gauzatzen nahikotasun mailatik gorago dauden ekintza komunikatiboak. Eta halako beharrak ez ditugunean –motibazioa, azken batean–, oso zaila da nork bere jarduna hobetzea, zuzentasunetik harago.

Hala ere, ez pentsa euskaltegi aurrean itzelezko jende-ilarak izango ditugunik, telebistako hainbat saioetarako izaten diren modukoak. Eskaera nahiko mugatua da, gaur egun behinik behin. Hori bai: apur bat nekatu beharra dago *casting*-ean, ikasleek duten –edo izan dezaketen– gaitasuna aztertzen eta, era berean, ikasleei ikusarazten zertan sartuko diren. Hartara, zuen operazioa ere arrakastarako bidean egongo da.

4. galdera *ZENBAT ORDUKO IKASTAROA IZATEN DA? ZEIN ERRITMOTAN?*

4. maila ikastaro berezia da, are modulazioaren aldetik ere. Kontuan hartu behar dugu eskatzen duen lanketa sakonak moteldu egiten duela erritmoa eta, orduan, ezin garela aritu ohikoak diren ikastaro-formatuetan.

2008-2009 ikasturtean oinarrituta –eskaintza nahiko berria izatean, behin eta berriro ari da aztertzen, eskarmentuak erakusten digunari erantzuteko–, honako ezaugarri hauek azpimarra ditzakegu:

- Matrikularekin batera, ikasleak bi ikastaro kontratatzen ditu: eskolako eta proiektuaren tutoretza. Lehenengoa, ikaskide guztiek komunean gauzatuko dutena eta, bigarrena, nork bere arloa, maila pertsonalean garatzekoa.
- Taldean egiteko ikastaroak 160 ordukoak izaten dira. HABEk ez ditu ordu gehiagoko ikastaroak onartzen. Horretarako arrazoia argia da: arestian aipatu dugun sakontasunak ez ditu bideratzen ikastaro luzeagoak, batez ere, eskolatik kanpoko lan eskerga eskatzen duelako, baita proiektutik apartekoa ere; esate baterako, ezinezkoa litzateke 4. mailako udako ikastaro trinkoa.
- Arrazoi beragatik, modulazioak ere laburra izan behar du. Nik eza-gutzen dudanaren arabera, bostetik seira artekoak izaten dira astean ematen diren eskola-orduak.
- Horretaz gain, ikasle bakoitzak 10 ordu gehiago izaten ditu, bere proiektua garatzeko. Proiektua da ikasleak, bere espezialitatetik abiatuta, garatuko duen lana, 4. mailaren adierazgarri izan beharko duena. Behar hori garatzeko, ikasleak 10 ordu izango ditu, tutoretza-saioretarako irakaslearekin.
- Bestalde, gaur egun HABErentzat ez da eskaintza berezia. Horrek esan nahi du beste taldeen betebeharrak dituztela (ratioak...).

Orain artekoak erakutsi digu denbora-tarte nahikoa dela ikastaroaren programa garatzeko. Horrek ez du esan nahi, noski, ikasle guztiek nahiko izango dutenik maila emateko (hasierako mailak ere badu zeresana auzi honetan).

5. galdera *ETA IKASTAROA ZERTAN DA? ZEINTZUK DIRA LORTU BEHARREKO HELBURUAK? ZE EDUKI LANDU BEHAR DITUT HELBURUOK LORTZEKO?*

4. mailako ikastaroaren helburu nagusia da idazki honen lehenengo atalean aipatu duguna; laburbilduz, maila duenak gai izan behar du, beste barik, edozein ekintza komunikatibo *zuzen* eta *egoki* gauzatzeko. Hau da, 4. mailadunak gai izan behar du bere eginkizunak burutzeko, aldamenean inolako laguntzarik ez duela.

Hori esatea eta ezer ere ez esatea antzeko samarrak dira ikastaldearen aurrean jartzen garenean, zeren eta, nora jo adierazten digun arren, definizio horrek ez baitigu erakusten bidea zein izan daitekeen.

Didaktikaren ikuspegitik, aletu egin behar dugu prozesua, helburu orokor horretara iristeko. Horretarako, ezinbestekoa zaigu *ekintza komunikatiboaren* kontzeptua. Hizkuntza darabilgunean, ekintza komunikatiboak gauzatzen ditugu; hau da, testuak sortzen eta jasotzen ditugu, beti, testuinguruak ematen dizkigun baldintzetan oinarrituta, eta baldintzoi egokituta.

Argiago ikustearren, hona hainbat ekintza komunikatiboren deskripzioa (izan daitekeena):

<i>IDATZIZ</i>	<i>AHOZ</i>
<ul style="list-style-type: none"> • Adituaren rolean, dibulgazio mailako aldizkari baten, iritzi-artikulua idaztea, xedea izanik gaiari buruzko informazioa ematea eta gaiarekiko jarrera bat sortaraztea. • Lagunen artean, postal bat idaztea, xede izanik, oporretan gaudela, gure berri ematea eta harremanak zaintzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Irakaslearen rolean, azalpenak eta esplikazioak ematea. Azalpenak adibidez eta deskribapenez osatzea, beti ere, hartzaileen zailtasun eta zalantzak argitzea xede. • Telebistan albistegia ikustea.

Zerrenda labur horietan zehaztu ditudan ekintza guztiak ez dira izango, agian, aproposak gure eskoletarako. Hala ere, nahita zerrendatu ditut horrela, bi kontu adierazteko: batetik, bereiztea komeni dela zeintzuk diren –eta, batez ere, zeintzuk ez diren– 4. mailako ekintza komunikatiboak; eta, bestetik, 4. mailakoak ez diren ekintzek ere eman diezaguketela aukera edukien lanketarako.

Ondorioz, ekintza komunikatiboak –hainbat hartuko_ ditugu, helburu operatibo gisa, unitate didaktikoen abiapuntu eta helmuga; ez horiek direlako, 4. mailakotzat hartu arren, ikasleak egiten ikasi behar dituenak, baina edukiak lantzeko aukera emango diguten neurrian.

Eta zeintzuk dira eduki horiek? Ba, euskalduntze-prozesu osoan bezala, 4. mailan ere lau multzotan banatzen ditugu edukiok: eduki soziolinguistikoak, testuingurua eraikitzen dutenak; eduki linguistikoak, testua zuzena izango bada; eduki testualak, testuen arauai egokitzeko; eta eduki estrategikoak, osotasuna kontuan hartuta, erabaki egokien adierazleak.

• *Eduki soziolinguistikoak.*–

Testuingurua baldintzatzean elementuak dira igorlearen eta hartzailearen rola, testu-generoa, erabilera-esparrua eta xede komunikatiboa, denek ere osotasuna gauzatzen dutela.

Pentsatu ez arren, oso zail egiten zaie ikasleei (gehienei, behinik behin) elementu horiei begirako testuak sortzea. Dirudienez, gai hau nahiko begien bistakoa da, *denok badakiguna*, nolabait esatearren. Eta, hain zuzen ere, horixe izaten da, askotan, ikasleen sortze-lanei darian herdoil-usainaren (eskolako idazlanak izaten dira) arrazoi nagusienetakoa.

- *Eduki linguistikoak.* –

Bloke honek jartzen gaitu, askotan, kontraesanean. Ikasleen iguripenek dioskute landu beharreko atal garrantzitsua dela. Ematen du, askotan, gure ikastaroa dela *benetako* 3. maila. Guk, ostera, aintzat hartzen dugu ikasleak, agiria izanda, gai izango direla zuzentasunez idazteko eta hitz egiteko (ahozko jardun kontrolatuetan, jakina).

Ikasleen hautemate horrek beste hausnarketa batera ere bagaramatza: zer erantzun eman diezaiekegu euskaldun horiei, euskaraz nasai aritu arren, gaurkotzea eta zuzentasuna lantzeko? 3. maila lortu dute; 4.a, ostera, oso urruti. Zer eskainiko diegu, baldin eta beren euskara-mailan aurrerapausoak egin nahi edo behar badituzte? Halako ikasleak ager dakizkiguke –agertzen zaizkigu– eta 4. mailaren bidea desitxuratzeko arriskua izan dezakegu. Beste norbaitek argitu beharreko kontua.

4. mailako ikastaroetan, eduki linguistikoak bi eratara zehazten ditugu: aurretiazkoak eta ondorengoak. Lehenengoak, programatu egingo ditugunak izango dira; esan nahi baita, ikasleak ezagutu barik ere, landu beharrekoak izango direnak. Sail horretan ditugu, besteak beste, puntuazioa, lexikoa, hitz-ordena... Akaso, ez dira berez 4. mailako edukiak izango, baina bai, behintzat, euskalduntze eta alfabetatze prozesuek lagatzen dituzten hondarrak.

Horren ondoren zehaztuko ditugun edukiak dira ezin aurreikus ditzakegunak, hau da, geure ikasle espezifikoen beharrei erantzuteko proposatuko ditugunak. Azken horiek aurrez zerrendatzea oso zaila da baina, egin ere, horixe egiten dugu euskalduntzearen bestelako mailetan ere: programa bat zehaztu eta, gure ikasleak ezagutzean, beharrezko egoitzapenak egin.

- *Eduki testualak.* –

Ekintza komunikatiboak taxuz gauzatzeko helburua dugula, ezin ahaztu testua dela ekintzon gauzapena; orduan, testuaren legeak betetzen ikasi beharko dugu.

Orokorrean, testuaren osotasunaz hitz egiten ikasi dugu euskaltegiotan. Jauzi bat egin dugu, eta badakigu esaldia baino gehiago dela hizkuntza-jardun osoa. Baina, beharbada, ideia hori eskolara eramatekoan, arazoak izan ditugu transmititzeko ustez argi duguna.

Koherentzia darabilgu, kohesioa darabilgu..., jakin barik, askotan, zer ote den, zehazki, adierazi nahi duguna. Jakina, egoera horrek arazoak dakartza ikasleekin lan egiterakoan.

4. mailan, testuak gobernatzen dituzten elementuak aletzen ditugu, hobeto ulertzeko zerk egiten duen ekintza komunikatiboa arrakastatsu. Horretarako, honetan dihardugunok Lourdes Elosegik eta Pello Esnalek³ egindako ekarpena hartu dugu oinarri. Testuaren arkitektura orokorra deritzonari jarraituta, aukera izan dugu ikusteko zeintzuk izan behar duten eduki testualek.

Horrela, hiru sail nagusitan banatuta, planifikazioari, konexioari, kohe-
sioari, ahotsei eta tonuari dagozkien elementuak xehatu ditugu, eta
ikastarorako eduki bihurtu: eskema, sekuentzia-motak, interaktibota-
suna, testu-antolatzaileak, izen- eta aditz-kohesioa, ahots enuntziatzaileak
eta modalizazioa.

Kontzeptu eta izen berri ugari, bat baino gehiago ikaratzeko modukoak
baina, ohartuki edo oharkabe, egunero erabiltzen ditugunak. Alde
horretatik, badago arriskua teorizazio hutsean jausteko; aitzitik, era-
bilera da landu beharrekoa, aztertuz besteek egindakoak eta eginez
norberak.

- *Eduki estrategikoak.*—

Sail honetan, komunikazio-estrategiak dira, guretzat, langairik inte-
resgarrienak. Berez, eduki horien egitekoa da, bloke bat osatu barik,
zerrendako beste hiru eduki-multzoetan ikasi duguna egoki erabiltzea.

4. maila askatasunaren maila da. Ikasleak arau zehatz eta markatu-
tako bideak gainditzen —baina errespetatuz—, eta erabakiak —egokiak—
hartzen ikasi behar du; erabaki egoki horiek egingo baitute, azken
batean, arrakastatsu testua.

Zeintzuk izango dira, orduan, edukiok? Zaila da zerrenda bat egitea,
baina hizkuntza-erabiltzaile arrakastatsuei erreparatu beharko diegu,
horietako hainbat atzemateko. Multzo honetan kokatuko ditugu, esate
baterako: tartekien erabilera, pausaldiak markatzeko; kontaketa-
ren erabi-
lera, azalpena arintzeko; lexikoaren modalizazioa, jarrera adierazteko...

Arestian ere aipatu dugu: zaila da teorizaziotik ihes egin, eta edukien
alderdi praktikoan ardatzea; direnei izena ematen diegu, eta izen horiek,
askotan, itsutu egiten gaituzte. Hasierako harridura gaindituta, 4. mai-
lako gelan berriazko metahizkuntza sortzen da, ikastaldeak konpartitzen
duena, eta testuen azterketa komuna bideratzen duena.

6. galdera ZER EGINGO DUT ESKOLETAN?

Aurreko galdera batean aipatu dugun moduan, 4. mailaren ibilbideak bi
adar jasotzen ditu: 4. maila orokorrari dagokiona, bata, eta norbanakoaren
espezializaziori erantzuteko erabiliko duguna, bestea... Eskolan, taldean,
lehenengo erronkari erantzuten saiatuko gara. Bakarka, tutoretza-saioen
bidez, landuko dugu norberaren arloa, *Proiektua* deitu dugunaren garape-
narekin. Proiektuari buruzkoek hurrengo puntua osatuko dute.

Orduan, definitu dugu helburu nagusia, zirriboratu ere bai izan dai-
tezkeen helburu operatiboak, eta, edukien sailkapena ere egin dugu. Zein
izango da, baina, biderik egokiena horiek lantzeko? Hizkuntzaren erabi-
lera helburu dugula, hizkuntzaren erabilera izan beharko dugu, jakina,
proposamen metodologikoaren ardatza.

Erabilera buruan dugula, unitate didaktikoen bidea hobetsi dugu.
Unitate didaktikoak ekintza komunikatiboa —testuan gauzatuko dena—

dute oinarri eta helburu. Ibilbide horretan, aukera emango digute proposatuko ditugun edukiak lantzeko, eta ikasleen etengabeko ebaluazioa egiteko.

Unitate didaktikoek hainbat osagai dituzte: helburua(k), edukiak, jarduerak eta ebaluaziorako tarte eta testu nagusiren baten oinarritzen dira; testu hori, normalean, ekintza komunikatiboaren eredia izango da, eta bere funtzio nagusia da ikasleek erreparatzea idazle onek darabiltzaten estrategiei.

Horrekin batera, beste hainbat testu osagarri ere erabiltzen ditugu; ez, akaso, beren kalitateagatik, baizik eta edukiren bat arretagune hartzeko aukera ematen digutelako. Lantzean behin, halaber, testu eskasagoak jorratzea ez dago lekuz kanpo, ikasleek atzeman dezaten zerk eragin ote duen kalitate falta hori. Testu guztiak, hori bai, errealak, erreferentzia eta testuinguruarekin, ekintza komunikatiboaren isla –hobea edo txarragoa_ diren neurrian.

Testu nagusia, esan dugun moduan, eredu izango da, strategiaren baten erabilerari dagokionez. Askotan, testu oso *korrektoak* (mailegua darabilt, hitzaren zehaztasuna azpimarratzeko) irakurtzen ditugu, oso ondo ulertzen ditugunak, baina nahiko lauak direnak, hau da, ezer berririk ez dakartenak. Guk bilatzen duguna da, aitzitik, atzera eragiten digun testua; atzera eragiten diguna, pentsatu dugulako: *Kontxo! politto jarabilk honek modalizaziñue; egundokuek esan jozak eta erreguka dabilela emoten jok. Berriro irakurriko joat*. Halako testua aurkituz gero, ez dugu inolako erreparorik izan behar testu horiek manipulatzeko (zaharrak badira, esate baterako, gaur eguneko arauen arabera jartzeko), beti ere, beharrezko erreferentziak emanda.

Unitate didaktikoan egingo ditugun jarduerak testu horiei begirakoak izango dira. Helburu nagusia da ikasleei ikustaraztea nola erabili diren guri, irakasle moduan, adierazgarri egin zaizkigun eduki horiek. Praktikarako ariketak egiten dira.

Funtsean, ikas-prozesua oso antzekoa izaten da unitate guztietan: testua aztertu eta erreparatu hainbat edukiri, eduki-multzoaren inguruan hausnartu, eta sortu, emandako baldintzak kontuan hartuta. Hori guztiori eskola-saioari mintegi kutsua ematen diogula; hau da, irakaslearen egitekoa da materialen aurkezpena. Eta edukien lanketa saioko partaide guztion arteko elkarreraginaren ondorio da.

Eskolan bilatzen duguna da ikaslearen moldaeraztasuna garatzea proiektuan eta bizitza errealean, estrategia-multzo bat edukita, zinetan aukeratu egin beharko baitu, unez une, beretzat egokiena.

Ia honezkero, apur bat izututa ere egongo zarete, halako lan-tamaina dagoela pentsatuko baituzue. Egia da. Dena den, badugu hainbat material erabilgarri, 4. mailako lantaldearen esku dagoena, oraindik ere. Materialok HABEko teknikariek eta 4. mailan diharduten hainbat irakasleek egindakoak dira. Zenbait testu-azterketa eta aipatutako ezaugarriak dituzten unitate didaktikoak aurkituko dituzue hor.

Azkenik, ezin dugu ahaztu hainbatek azterketa dutela erreferente, ikasleen nolakoa aztertu dugunean ikusi dugun bezala. Hori dela eta, ez dugu ahaztuko *azterketak egiten jakitea* ere badela eduki ikastaro honetan –ikastaro guztietan, egiatan, proba bat baitute amaieran_. Saio hauetan, ikasleei azaldu egiten zaie zer ezaugarri izaten dituen 4. mailako azterketak, zeri erreparatu behar zaion bereziki, eskuz idazten –zein azkar ahazten zaigun– trebatzen dira...

Orain arte, ikastaroaren bukaeran eman diogu tarteren bat, maila baduenak erosoago froga dezan azterketa-egunean.

7. galdera *PROIEKTUA? ZER DA HORI?*

Eskolan egiten ditugun lanak nahiko bideratuta egoten badira ere, *Proiektua* deritzona da askatasunaren eremua: ikasleak bakarrik egingo du lan, bere arloko behar bati erantzuteko eta berak hartuko ditu hor erabakiak. Lan-adar horretan, ikasleak erakutsi egin beharko du ikastaroan ikasten ari dena; ikastaroarekin batera doa, eta handik elikatzen da.

Proiektua jaio zen 4. mailaren espezifikotasunari irtenbidea emateko. Maila horretan hizkuntza sortzeak errealitatetik oso gertu egotea zekarren eta, horretarako, hurbilpen hori eta, era berean, 4. mailak eskatzen duen gutxieneko exijentzia batuko litzuzkeen lana behar genuen.

Lan horrek baldintza batzuk ditu; besteak beste, bakoitzaren espezialitatean oinarritutako lana da, ekintza komunikatibo baten isla eta gutxieneko luzera dauka: 18.000 karaktere. Horrez gain, orain arte behintzat, horixe izan da ikasleak euskaltegian maila ematen duelako froga.

Proiektua bideratzeko, tutoretza pertsonalak erabiltzen ditugu: aurrez aurrekoak edo baliabide teknologikoak erabilia egiten ditugunak. Tutoretza horietan, irakasleak lagundu egiten dio ikasleari sortze-prozesuan: ekintza komunikatiboa zehazten laguntzen dio (kontuan hartu 4. mailakotzat hartu beharko dugula, batez ere, ekintza komunikatiboa), testuaren planifikazioan laguntzen dio, eta aholku orokorrak ematen dizkio; helburua da ikasleak argi izatea zer egin nahi duen (askotan, eskolako idazlanetan, egin ostean erabakitzen dugu egin nahi izan duguna), eta egin nahi duen hori egiten dela bermatzea.

Ekinbide honetan, arazo larriena izaten da ikasleek ez dutela ikusten zertan diren beraiek espezialista edo aditu. Berba potoloa delako, agian, zail izaten da haiei sinestaraztea badirela zer edo zertan adituago, beste zertan baino.

Beste kasu batzuetan, ordea, ikasleek erronka bezala hartzen dute proiektua, eta ikerketa-lanerako erabiltzen dute proiektu hori. Garrantzi handikoa da hasierako erabakiak zuzen hartzea, batez ere, arloari eta ekintza komunikatiboari dagozkionak; bestela, arriskua dago lana irtenbiderik gabe geratzeko.

Proiekturako tutoretzek bi ildo nagusi izaten dituzte. Hasiera batean, aipatu berri dugun arazo horiek saihesteko, komunikazioa izaten da

garrantzizkoena: irakasleak ondo bideratu behar du ikaslea, zuzenak izan daitezen aurrez hartu behar diren erabakiak. Gero, lanak aurrera egin ahala, tutoreak baloratu egin behar du zein neurritan hurbiltzen zaion sortutakoa planifikatuari.

Hala ere, tentazioa izan dezakegu ikaslearen lana “zuzentzeko”. Kontuz ibili behar dugu, zeren eta zuzentzen dugun neurrian, lana gero eta geure-agoa izan baitaiteke –irakasleona, alegia– eta horrek ez dakarkio onurarik ikasleari. Gure ekarpena da, normalean, aholku emaile izatea: zertan ari den asmatzen, eta zertan ez adieraziz; eta akaso, azken horien adibideren bat azpimarratzen zaio ikasleari, berrikusketa bidera dezan.

Proiektua ikastaro osoan garatu beharreko lana da. Hori, berez abantaila baino ez da, denbora dezente behar da-eta halako idazlana garatzeko. Baina askotan kontrako eragina ere izaten du. Joera izaten dugu, denok ere, lanak atzeratzen lagatzeko. Kontuz ibili, beraz, horrekin; ez bakarrik ikaslearen lana taxuz gainbegiratzeko, baizik eta irakaslearena ere pilatu egiten delako, epeek estutzen gaituztenean.

8. galdera *ZELAN EGITEN DA EBALUAZIOA?*

Ebaluazioa da, baiki, euskalduntze-prozesuan –ikas-prozesu orotan_ aurrera egiteko gakoa. Hala ere, prozesuan zenbat eta aurrerago egin, orduan eta pisu handiagoa hartuko du gai horrek, maila apalenetan “ikas-teak” garrantzi handiagoa hartzen duen moduan.

Ikas-prozesuan aurrera egin ahala, informazio hobea emango digu jakiteak egiten dugun horrek zenbaterainoko arrakasta lortzen laguntzen duen. 4.a izanda mailarik gorena, ebaluazioa gakoa da.

Ikastaroan zehar, hiru ebaluazio-mota bereizten ditugu: hasierakoa, jarraikia eta amaierakoa. Ikasleen nolakoa aztertu dugunean esan dugu garrantzi handikoa dela ikasleen hasierako maila ezagutzea, gerora ez dezagun, eta ez dezaten, ezustekorik izan. Gainera, hasierako ebaluazio diagnostikoak ere pistak eman diezazkiguke jakiteko, adibidez, zein arlo landu behar diren, bereziki, honako taldean edo halako ikaslearekin.

Amaieran egiten dugun ebaluazioak funtzio sumatibo hutsa izaten du: ikasleak maila ematen ote duen ikusten dugu. Akaso, mailarik erakutsi ezean, aztertu egingo dugu zer falta duen ikasle horrek mailara iristeko, bigarren urte batez ekitea erabakitzen badu ere.

Ebaluazio sumatiborako, hainbat informazio-iturri darabiltzagu. Nagusiena proiektua da. Baina, horretaz gain, ikastaroan zehar egindako lanei ere arretaz erreparatzen diegu. Horieta ere aztarna ugari topatzen baititugu, ikaslearen mailaren deskribatzaile. Proiektua ikaslea askatzeko tokia bada, barrenak hustekoa, bestelako lanek ikasleak egoera ezberdinetara egokitze duen gaitasunaren berri ematen digute.

Zalantza barik, ebaluazio-tarterik eraginkorrena ikastaroan txertatutakoa da. Ebaluazioak, unitate didaktikoaren atal ezinbestekoa denez, toki

garrantzitsua hartuko du prozesuan; berorrek esango digu zein neurritan ari diren ikasleak helburuak lortzen, edo zeri ekin behar zaion helburuok lortzeko.

Hainbat modutara egiten dugu etengabeko ebaluazioa. Batzuetan, maila pertsonalean, irakasleak ikasleari ematen dio informazio zuzena; beste batzuetan, ostera, ikasleak berak egin behar du bere ekoizpenaren analisia, jarraibideen laguntzarekin. Azkenik, oso interesgarria izaten da, halaber, ikasleen arteko ebaluazio-saioak, inoren lanak baloratzeak laguntza izugarria baitakar, bai norberaren lana berrikusten trebatzeko, eta baita elkarrengandik ikasteko ere. Zentzu horretan, ikasleen testuak eskolarako materiala ere bihurtzen ditugu.

Eta zeri erreparatu behar zaio ebaluazio-saio horietan? Ba, prozesuaren kokapenaren arabera. Esan nahi baita, unitatean hainbat eduki aurkeztuko ditugula eta horien erabilera da baloratuko duguna, une oro; jakina, horrek dakar ebaluazioak pisua hartzen joatea, ikastaroak aurrera egin ahala, eta sekuentzia jakin baten landutako kontuez gain, aurrez ikusi ditugunak ere arretagai hartzea.

Esan dugun bezala, 3. maila baduten ikasleak ditugunez gero, testuek erabat zuzenak izan behar dute. Dena den, baldintza hori ez da (ia) sekula betetzen. Noski, zuzentasunari ere erreparatu beharko zaio. Zuzentasun-arazoei aurre egiteko, irtenbidea ematen saiatuko gara, ez ikas-prozesua baldintzatuz, baizik eta ikasle banakoari eman ez bere arazoa konpontzeko –berak konpontzeko– baliabiderik egokienak (bibliografia, web-baliabideak...).

9. galdera *BA AL DAGO BEREZIKI GARATU BEHARREKO EREMURIK?*

Bizitzako arlo guztietan, beti dago zer hobetu eta zer garatu; era berean, hizkuntzen i(ra)kaskuntzaren munduan badago zer ikerturik. Gure proiektu honetan, oraindik hazten ari dela, zer esanik ez.

Lehenengo eta behin, materialen kontua aipatu nahi nizueke: egia da, esan dugu arestian, badaudela hainbat unitate didaktiko, aurrera egitea ahalbidetu dutenak. Hala ere, materialok irakasleei eskatu zaizkien lanak dira, gaikuntza didaktikoaren baldintza moduan. Hortaz, maila pertsonalean eta ez-koordinatuan egindako unitateak dira. Horrek dakar material dezente (kantitate- eta kalitate-adiera biek) izatea, baina ikastaroaren hasierari, batez ere, erantzungo lioketenak. Akaso, makalxeago gabiltza ikastaroaren erditik aurrera ekiteko.

Bestalde, ahozko ekoizpena landu behar dugu. Azalpen honetan ikusi duzuen moduan, testuez eta testuez ari gara. Lantzean behin, idatzizkoak direla ere iradoki dut. Testuez ari gara, eta testutzat ditugu ahozko zein idatzizkoak. Hala ere, eskolako lanerako erosoago egiten zaigu, maila guztietan, idatzizko euskarria; idatzizkoaren iraunkortasunak eta, sortzeko orduan, hausnarketarako astiak bat egiten du bilatzen ari garen ekoizpen-moldearekin. Hori dela-eta, ditugun materialak ere, gehienak, idatzizkoaren garapenari begirakoak dira.

Ahozko hizkuntzak, aldiz, baditu bestelako aldagarriak. Hartuko ditugu, beharbada, erabaki egokiak, baina zail egiten zaigu horien arabera testuak taxutzea, ahozkoaren bat-batekotasuna dela-eta. Orain arte, ahozko testuak azterketa eta hausnarketarako erabili izan ditugu, soilik. Badugu, hortaz, beste puntu bat garatzeko.

Trebetasun hartzaileek ere beharko lukete garapena. 4. maila duenak gai izan behar du entzundakoaren eta irakurritakoaren esanahi literaletik harago joateko; bigarren mailako esanahiak ere atzeman behar ditu. Hori, hain begi-bistako dirudiena, ez da beti betetzen gure ikasleen artean.

Eta ez nituzke euskalkiak ahaztu nahi. HEOKari erreparatzen badiogu, *euskalkietako berbaldiak eta idatzizko testuak ere ulertzeko gai da* 4. mailaduna. Denok ezingo dugu, seguruenik, euskalki guztietan hitz egiteko gaitasunik izan, baina hizkuntza maila gorena duenak gai izan beharko luke euskalki guztietan jasotakoa ondo ulertzeko. Testu-ereduren batean agertzen ez bada, ez zaio berariazko arretarik ematen gaiari, gaur egun.

Hala ere, zuek ere, eskolak ematen hasten zaretenean, ikusiko duzue zer jorratu; zeuek eman beharko diozue erantzuna hainbat beharri. Ez da seinale txarra izango.

10. galdera *ZELAN EGOKITZEN ZAIO ON LINE FORMATUARI?*

AEKn, 2008-2009 ikasturtean, ohiko taldeez gain, saiakera egin dugu 4. maila *on line* emateko. Badirudi jendarteak eskatzen duen formatua dela ze, inolako informazio-kanpainarik egin gabe, nahiko jendetsua izan baita, gure iguripenak betetzeko modukoa.

Formatuak ez du, baina, aldaketa nabarmenik eragin. Egin duguna izan da, soilik, aurrez aurreko eskoletan egiten duguna MOODLE-era moldatu, horixe izan baita ikastarorako erabili dugun plataforma. Orduan, helburuak, edukiak, ebaluazio-moduak eta ia jarduerak ere oso antzekoak dira.

On line formatuak, 4. mailan, bestelako ikastaroetan dituen aldekoak eta aurkakoak ditu. Aurkakoen artean, nekez lortuko dugula, baiki, komunikazio-maila berdintzea; aurrez aurreko komunikazioa bezalakorik ez dugu asmatu, nahiz eta dezente aurreratu dugun horretan ere (bideo-konferentzia, telefonoa, posta elektronikoa ...).

Baina abantailak ere ez dira makalak. Lehenengoa, jakina, hainbat ikaslerengana heltzeko bide bakarra dela. Gaitza izango da euskaltegi bakoitzak izatea bere 4. mailako ikastaroa; esan dugu aurrerago, ez dago halako eskaerarik, eta ezerk ez diosku larregi handituko denik.

On line formatuak, denbora, leku eta, ia, maila diferenteetan lan egiteko aukera ematen digu; euskaltegi birtuala sortzeak gainditu egin ditzake taldeak egiteko balizko arazoak.

Formatu birtualak badu beste abantaila bat ere: ikasleak landu beharrekoak ditu, bibliografia, jarduera osagarriak... berak nahi, ahal edo behar duen neurrian erabiltzeko. Horrek dakar eskola “pertsonalizatuago” bat,

non ikasle bakoitzak derrigorrezko hainbat lan izan ezik, aukera izango duen berari ondoen egokitzen zaizkionak lantzeko.

Era berean, ezin dugu ahaztu erabilera dugula ipar, ezinbestekoa dela euskarri informatikoan idaztea. *On line* ikastaroak berezkoa du euskarri hori, abantailak baino ez dituen, testuan bertan egiteko ekarpenak, mol-daketak eta abarrak.

Hobetu beharrekoen artean, bi kontutxo aipatuko nahi nituzke, ez bereziki 4. mailako, baizik eta *on line* ikastaro guztietan gertatzen direnak: lehen-go, ikasleak inplikatzeko arazoak, askotan ematen baitu, elkar ikusten ez dugunez, ikastaroari ihes egitea errazagoa dela; bestea, ikasleak elkar-reraginean aritzeko motibazio-lanak. Askotan ematen du 15 kideko ikastaroa baino, banan-banako 15 ikastaro egiten ditugula. Gurea mintegi moduan eraikita dago baina, horretarako, ezinbestekoa da ikasleen arteko komunikazioa eta elkarlana.

Emaitzen aldetik, eta ziurtagiriak gorabehera, ez da alde nabarmenik izan formatu bateko eta besteko ikastaroetan. Nik neuk, bi moduetan eman dut ikastaroa eta ikasleek lortu duten maila oso antzekoa da. Beraz, ustiatzen jarraituko dugun bidea izango da.

Bukatzeko

Ikusi duzueenez, nahiko perfilatuta daude 4. mailaren eskaintzari buruzkoak; 4. mailaren curriculum, alegia. Gaur egun, hainbat euskaltegitan dagoen eskaintza zabaltzen ari da, eredu honi jarraituta.

Maila teorikoegian aritu ote naizelako susmoarekin geratu naiz. Nolabait, zuen jakin-min osoa ase ez dudalakoan (*bai, baina zelan egiten da hori*). Horretarako, erabili aukeran dituzuen prestakuntza-bideak; beroietan izango baituzue beta, ganoraz ezagutzeko hemen zirriboratu baino ez dena. 4. maila interesgarri izan dakizueke, baita ikasle moduan aritzen bazarete ere.

Badugu nondik abiatu baina, dena den, asko dugu oraindik ikasteko. Eta ikasteko, ez dago ahal denik eta ekarpen gehien –zuenak ere bai, laster batean– izatea bezalakorik.

Bibliografia

1. **HABE**, 1999. *Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Kurrikulua*. Donostia: HABE. 33. or.
2. http://www.habe.org/pdf/erreferentzi_markoa.pdf.
3. **Elosegi, L. eta Esnal, P.** 2004. “Euskaltegi-kurrikuluak egiteko jardunbide bat” (monografikoa). *Hizpide* 57. HABE. Donostia.